


EUSKAL AEko ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI), 2011ko URTARRILA

Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,8 igo ziren 2011ko urtarrilean aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan 2010eko urtariletik 2011kora) eraikuntza kostuak %0,6 igo dira.

2011ko urtarrilean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,8 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa hil horretarako %0,6 igo zen, EUSTATen datuen arabera.

Abenduko urte arteko aldakuntza-tasak, 2006-2011



(*) Gehikuntza urtarilatako urte artekoa da
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

2011ko urtarrilean, lan-eskuaren kostua %1,5 igo zen; lehengaien kostuak, berriz, %0,6.

Urtarrilean Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek goranzko bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzan %0,6ko igoera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %0,9koa. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran badira zenbait ezberdintasun: Etxegintzako lehengaien kostuak %0,3 jaitsi ziren; Obra zibilekoak, berriz, %3,1 igo.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean, Kokeriak eta petrolio-fintzea (%20,3), Energia elektrikoa, gasa eta lurruna (%20,1), Metalurgia (%18,4), eta Kautxu eta plastikozko produktuak (%6,1) nabarmentzen dira, besteren artean. Berriz, urteko prezioetan (2011ko urtarrila 2010ekoaren aldean) jaitsierak izan dituzte ondoko sektoreetako lehengaiak: Erauzketa industriak (%-7,3), Zura eta artelazkia, altzariak izan ezik (%-0,4), Ez-metalezko industria (%0,8), Produktu informatiko eta elektronikoak (%0,9).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 201KO URTARRILA. BEHIN-BEHINEKO DATUAK

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	119,4	0,8	0,6	0,8
ERAIKINAK	118,7	0,8	0,0	0,8
OBRA ZIBILA	122,0	1,0	2,7	1,0
LEHENGAIEN KOSTUA	118,5	0,6	0,4	0,6
ERAIKINAK	117,6	0,6	-0,3	0,6
OBRA ZIBILA	121,7	0,9	3,1	0,9
LAN-ESKUAREN KOSTUA	122,9	1,5	1,5	1,5

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Eraikuntza Kostuen Indizea Ohar metodologikoa

2011ko urtarrileko Eraikuntza Kostuen Indizeen zabalkundearekin batera, Eustatek aldaketa bat gauzatu du erabilitako jarduera ekonomikoen sailkapenean (JESN). CNAE-93 [JESN-2009](#) sailkapenaz ordeztu da.

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua